

## **EUSKAL HERRIKO IV. MUS TXAPELKETAren AURKEZPENENKO INFORMAZIOA**

Burutu da Euskal Herriko V.Mus Txapelketaren aurkezpena Aguraingo Udaletxean (Araba). Aurkezpenean, Euskal Herriko Mus Federazioko kideek eta Aguraingo Udaleko Alkateak parte hartu zuten.

**Bidaliriko argazkietan ezkerretik eskuinera:**

Felix Urra, Mixel Etxeberrri, Raul Gartzia, Maider Garcia Aguraingo Alkatea, Urko Losada eta Jose Jabier Sestorain "Gorritz".

INFORMAZIO OROKORRA eta DATUAK **informazio osatuagoa dossierrean**

**Parte hartzea:** lazko txapelketan, 2250 bikotek parte hartu zuten, hau da 4.500 pertsonak, aurreko urteetako datuak gogoratuko ditugu:

- 2009ko txapelketan 1.120 bikotek parte hartu zuten mus txapelketan.
- 2010eko txapelketan 1.800 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2011ko txapelketan 2.200 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2012ko txapelketan 2.250 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- Euskal Herriko zazpi herrialdetako edonork parte hartu dezake txapelketan. Bere herrian antolatzen den lekuan izen eman edo agertzearekin eta bikoteko 20 euro ordaintzearekin nahikoa du.

**Zabalpena:** Euskal Herri osoko 250 herri baino gehiagotan jokutzen da Euskal Herriko Mus Txapelketa.

**Sariak:** 45.000 euro baino gehiago banatzen dira sarietan. Parte hartzaile bakoitzak oroigarria jasotzen du.

**Datak eta epeak:** Azaroa, abendua eta urtarrila herrietako kanporaketak, 2013ko otsailean herrialdeko kanporaketak eta 2013ko martxoaren 9an final nazionala.

### WEBGUNE BERRIA

[www.euskalherrikomusfederazioa.org](http://www.euskalherrikomusfederazioa.org) webgunea berri da aurtengo txapelketarako. Bertan aurkitu daiteke herrietako informazio oro bai eta txapelketan parte hartzeko behar den guztia. Txapelketaren antolakuntzan parte hartu nahi dutenek ere bertan aurkitu ahalko dituzte antolakuntzarako irizpide guztiak.



Euskal Herrian, 2012ko urriaren 24ean.

Kontaktua: RAUL GARTZIA  
Telefonoa: (0034) 945 102 970 eta (0034) 649 995 038  
Email: [prentsa@euskalherrikomustxapelketa.org](mailto:prentsa@euskalherrikomustxapelketa.org)  
Web orria: [www.euskalherrikomustxapelketa.org](http://www.euskalherrikomustxapelketa.org)

